

TALDE KOHESIOA

LANTZEKO JARDUERAK

DBHko 3. maila

- **1. EGUNA (08:00-10:45)**

1. DETEKTIBEAK TOPATUTAKO BISITA TXARTELA

a. Helburuak

Kurtso hasieran taldea osatzen duten ikasleek elkar ezagutzea; batez ere, aurreko mailetan taldean egon ez direnek.

Tutoreak zalantzak argitzea.

b. Materiala

Orrri zuriak, arkatzak eta boligrafoak.

c. Iraupena

35 min-50 min

d. Garapena

Ikasle bakoitzak, orri erdi batean (txartela), letra larriz idatziko du bere izena edo ikasturtean zehar zein izenez deitzea nahiago duen, eta parentesi artean abizena. Horrez gain, adieraziko du zein taldetan egon zen aurreko kurtsoan.

Txartelaren eskuinaldean (goialdean), deskribatzen duten adjektibo bi idatziko ditu (*zintzoa, kirolzalea, berekoia...*).

Txartelaren ezker aldean, zer egitea gustatzen zaion idatziko du (igeri egin, irakurri, musika entzun...).

Txartelaren behealdean, hauek idatziko ditu: bisitatu nahi lukeen leku bat, telebista programa gustukoena, aktore gustukoena, harro sentiarazten duen zerbait eta ezagutarazi nahi duen edozein ezaugarri.

Txartelaren atzealdean, tutorearentzako galderak idatziko ditu.

10 minutu pasatutakoan, bakoitzak bere txartela jarri beharko du mahai gainean, besteek ikusi dezaten. Denbora batez, taldekide guztiek arretaz irakurri beharko dituzte besteon txartelak, hurrengo pausoa detektibearena egitea izango da eta.

TALDE KOHESIOA

LANTZEKO JARDUERAK **DBHko 3. maila**

Tutoreak, 10-15 minutu pasatu eta gero, txartel guztiak jasoko ditu. Txartelak nahastu ondoren, bat aukeratuko du (edozein), eta, lehenengo detektibea izendatuko du ikasleen artean. Hemendik aurrera:

- Gehienez 8 galdera egin ondoren, asmatu beharko dute nor den orrian agertzen den laguna.
- Txarteletan dauden kontuei buruz baino ezin dira formulatu galderak.
- Galderak “Bai” edo “Ez” esanda erantzun daitezke; ezin da bestelako erantzunik egon.
- 5 galdera egin ondoren, galdetu ahal izango da izena zein letrarekin hasi eta zeinekin amaitzen den.
- Detektibearena egiten duen pertsonak, txarteletako laguna nor den asmatuz gero, beste txartel bat aukeratuko du.
- Txartelean deskribatzen den pertsona asmatutakoan, txartel osoa irakurriko da, ozen.
- Interesari eusten dioten bitartean jarraitu daiteke jolasean. Eta tutoreak ikasleek egindako galderak erantzungo ditu.

2. AURKEZPEN MISTERIOTSUAK

a. Helburuak

Giro lasaia, eroso eta umoretsua lortzea.

b. Garapena

- 4-6ko taldeak egingo dira.
- Ikasle bakoitzak bi istorio kontatuko dizkio taldeari: bata benetakoa baina harrigarria, arraroa, berezia...; eta bestea, asmatutakoa baina guztiz sinesgarria. Taldekideek galderak egin beharko dizkiote kontalariari istorioak benetakoak diren edo ez igartzeko.
- Talde bakoitzean istoriorik onenak aukeratu, eta beste taldeen aurrean kontatu beharko dituzte.
- Galderak eginez, gelakideek asmatu beharko dute zein den benetako istorioa eta zein gezurrezkoa.

TALDE KOHESIOA

LANTZEKO JARDUERAK

DBHko 3. maila

3. KARRATUEN JOLASA

a. Helburuak

Partaidetza bultzatzea.

Taldearen elkartasuna bultzatzea.

Elkarlanean aritzea.

Hitzik gabeko komunikazioa erraztea.

Arazoak identifikatu eta bideratzea.

b. Materiala

Gutun azalak, eta haien barruan puzzle zatiak.

c. Iraupena

60 min

d. Garapena


5-6 ikasleko taldeak osatuko dira. Talde bakoitzak 5 gutun azal jasoko ditu. Gutun azaletan dauden pieza guztiekin, posible da bost karratu berdinean osatzea: hori izango da dinamikaren helburua. Taldekide bat kanpoan geratuko da behatzaile moduan aritzeko.

Arau hauek bete behar dira:

- Ezin da hitz egin, ezta keinurik egin ere.
- Ezin da piezarik eskatu. Taldekideek erne egon behar dute: prest egon behar dute bakoitzari behar duena emateko.
- Taldean bukatzen saiatu behar da, ez norberak bakarrik oso-osorik egin.
- Behatzaileak jokaera deigarriak apuntatuko ditu gero guztiekin partekatu eta *feedbacka* errazteko.

TALDE KOHESIOA

LANTZEKO JARDUERAK DBHko 3. maila



1. gutun azala: A A A C
2. gutun azala: F D
3. gutun azala: G B F C
4. gutun azala: I H E
5. gutun azala: A J

4. INTERESEN PROFILA

a. Helburuak

Taldearen lehentasunak zein diren jakitea eta gelakideak hobeto ezagutzea.

b. Iraupena

Banakako lanarena, 5 min

Talde txikian egitekoarena, 30 min

c. Materiala

Inkesta.

d. Garapena

Inkestan agertzen diren erantzunetatik, ikasle bakoitzak 2 puntu emango dizkio gustukoaren duenari; eta puntu bat hurrengoari.

Ondoren, talde txikian, amankomunean jarriko dituzte emandako erantzunak, idazkari batek puntuazioak hartzen dituen bitartean. Azaldu beharko dute zergatik aukeratu dituzten erantzun horiek, eta, hala eskatuz gero, erantzun beharko diete lagunek egindako galderei.

TALDE KOHESIOA

LANTZEKO JARDUERAK

DBHko 3. maila

Gero, guztion artean, adostuko dira ikasturtean zehar zer gai landuko diren tutoretza orduetan. Azkenik, idazkariak jasotako emaitzekin, taldearen interesak kartulina batean islatuko dira.

- **2. EGUNA (08:00-10:45)**

5. ETXEBIZITZA IDEALA

a. Helburuak

Taldean gaudenean zer jarrera ditugun aztertzea, eta onartzea noizbait amore eman behar dela taldearen onurarako.

b. Iraupena

45 min guztira

c. Materiala

Orri zuria eta boligrafoa.

Metro bateko paper zatia, arkatzak eta ezabagailua.

d. Garapena

- Banakako lana (10 min)

Ikasle bakoitzak bere “ametsetako etxea” irudikatu beharko du orri zurian. Muga bakarria irudimena da... Ahalik eta detaile gehienekin marraztu beharko dute (bizileku mota: pisua, baserria...; non dagoen: hirian, mendian, hondartza aldamenean, munduko zein herritan...).

- Talde txikian egitekoa (7-8 min)

Zer-nolako irudia marraztu duten eta zergatik aukeratu duten azaldu beharko dute talde txikian.

- Talde txikian egitekoa (15 min)

Talde txikian, aurreko pausoan entzundakoarekin, etxe bakar bat osatuko dute metro bateko paper edo kartulinar. Etxe hori guztiok gustura bizitzeko modukoa izan

TALDE KOHESIOA

LANTZEKO JARDUERAK DBHko 3. maila

beharko litzateke; hasieran esan bezala, ez dago muga ekonomikorik, ez geografikorik...

Ikasle bakoitzak, bere txandan betiere, marra bakar bat egin dezake, eta aurrekoen marra bat ezabatu ahal izango du. Ezinbestekoa da isilik egotea; ondorioz, irudia osatzen den bitartean, ezin da hitzik egin. Guztion elkarlanean, beraz, etxe bat osatuko dute *taldearentzat*.

○ *Talde handian egitekoa (10-15 min)*

Talde bakoitzak bere etxea erakutsi eta azalduko du. Eta galdera hauek plazaratuko ditu irakasleak:

- “Nortzuk biziko zinatekete gustura egindako etxean?”
- “Zuen ustez, errespetatu dira zuen ideiak?”
- “Saiatu zarete besteen ideiak errespetatzen, nahiz eta zuon interesen kontra joan? Zer sentiarazi dizue horrek?”
- “Zer da sentitu duzuen ikaskide batek zuok egindakoa ezabatu duenean?”

6. TALDEAREN AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak)

a. Helburuak

Taldearen alde positiboak eta negatiboak identifikatzea.

Ikasturterako konpromisoak zehaztea (alde negatiboak hobetu eta positiboki indartu).

b. Garapena

○ Talde txikian (4-5 lagun), 15-20 min

Talde bakoitzak zerrendatuko du zer ahulezia, mehatxu, indargune eta aukera ikusten dituen.

○ Talde handian, 30 min

Talde bakoitzaren zerrenda arbelean idatziko da. Guztion artean, taldearen gutxieneko konpromisoak adostuko dira. Konpromiso horiek kartulina batean

TALDE KOHESIOA

LANTZEKO JARDUERAK

DBHko 3. maila

idatzi, eta gelako horman itsatsita geratuko da. Konpromisoak ahalik eta modu positiboenean enuntziaztea gomendatzen da.